

**ZERBITZUEN KONTRATAZIOKO JARDUNBIDE EGOKIEI BURUZKO
JARRAIBIDEAK****Aurkibidea**

- Lehena.** Xedea
- Bigarrena.** Eremu objektiboa.
- Hirugarrena.** Eremu subjektiboa
- Laugarrena.** Jarduteko printzipioak
- Bosgarrena.** Kontratatu ezin diren zerbitzuak
- Seigarrena.** Kontratatu daitezkeen zerbitzuak
- Zazpigarrena.** Jarduteko prozedura
- Zortzigarrena.** Zerbitzu-kontratuak kudeatzerakoan langileak legez kanpo lagatzea saihesteko jardunbide egokiak
- Bederatzigarrena.** Klausula-agirian barne hartu beharreko klausula
- Hamargarrena.** Ez betetzeak dakarren erantzukizuna
- Hamaikagarrena.** Erreklamazio judizialen edo auzibidetik kanpokoen kasuan hartu beharreko neurriak
- Hamabigarrena.** Langileen legez kanpoko lagapena saihesteko informazioa eta prestakuntza.
- Hamahirugarrena.** A posteriori kontrolak eta jarraipena
- Hamalaugarrena.** Ezarpena
- I. eranskina** Zerbitzu-kontratuak egiteko aurretiko baldintzei buruzko memoria
- II. eranskina.** Zerbitzuak kontratatzeko administrazio-klausula zehatzen agiri-ereduen aldaketa
- III. eranskina.** Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutako administrazio-klausulen agiri-ereduak aplikatzen ez zaizkien botere esleitzailaiek, zerbitzu-kontratuak egiteko kontratu-dokumentuak osatzeko, kontuan hartu beharreko klausulak eta gauzatze-baldintzen konpromisoa.
- IV. eranskina.** Jardunbide egokiak langileak legez kontra lagatzea saihesteko

Lehena.- Xedea

Hona hemen jarraibide hauen xedea:

a) Zerbitzu-kontratuen bitartez zer prestazio eta zer baldintzatan kontrata daitezkeen zehaztea.

b) Zerbitzu publikoak emateko, kudeaketa eragingarria eta eraginkorra izatea lehenetsiko dela zehaztea; hau da, kontratua egin aurretik beharrei baliabide propioekin (bai pertsonalak bai materialak) erantzuten saiatu beharra dagoela.

c) Zerbitzu-kontratuen prestaketa eta gauzatze faseetan jardunbide egokiak zehaztea, langileen legez kanpoko lagapena saihesteko.

d) Jardunbide egokiak betetzen diren kontrolatzeko prozedura berri bat diseinatzea; jarraibide hauetan agertzen diren irizpideak betetzeko erantzukizuna kontratua egiteko ekimena daukaten erakundeen esku utziko da, eta funtzio publikoaren arloan eskumena duen Sailburuordetzaren esku-hartzea zabaldu egingo da, ondoren irizpide horiek egoki bete diren egiaztatzeko orduan.

Bigarrena.- Eremu objektiboa

Jarraibide hauek Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategineko 10. artikuluan tipifikatutako zerbitzu-kontratuak egiteko prozedurei aplikatuko zaizkie – 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen aipatutako testu bategina–.

Hirugarrena.- Eremu subjektiboa

Jarraibide hauek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren parte diren erakunde guztiei aplikatuko zaizkie, jarraibideek beraiek zehazten dituzten baldintzetan eta norainokoan.

Sektore publikoko erakunde batek, bere araubide juridikoa dela-eta, jarraibide hauek osoki ezin dituela bete baderitzo, zuzenean aplikatuz gero kudeaketa-zailtasun nabarmena eragiten dion zatia egokitzeko eskatu beharko dio funtzio publikoaren arloan eskumena duen Sailburuordetzari; hark, eskaera aztertu ondoren, egoki deritzon egokitzapena egitea erabakiko du, hala badagokio.

Laugarrena.- Jarduteko printzipioak

Zerbitzu-zuzendaritzek edo kontratazio arloko eskumena daukaten sektore publikoko antolaketa-unitateek, zerbitzu-kontratu proposamenak egin ahal izan dituzaten, ondoko printzipioak bete beharko dituzte:

a) Eman beharreko zerbitzuak planifikatu. Horretarako, ezusteko eta berehalako egoera bat ez baldin bada, aurretik behar beste denborarekin, beharrei nola erantzun aurreikusi behar da, eskura dauden baliabideak kontuan hartuz edo, kasuan kasu, beharrezkoak diren antolakuntza arloko egokitzapenak izapidetu.

b) Ahal izanez gero, baliabide propioak erabili: zerbitzuak emateko dauzkaten giza baliabideak eta elementu teknikoak. Giza baliabideen gabezia eta langile kopurua handitu ahal ez izatea ez dira, bere horretan, kontratazio beharra justifikatzeko argudio izango. Justifikatuta dauden kasuetan, eginkizunak beste norbaiti esleitu ahal izango zaizkio.

c) Ohiko beharrak eta behar iraunkorrak ez kanporatu; berezko langileekin erantzun beharko zaie, seigarren jarraibidean aurreikusitako kasuetan izan ezik.

d) Jardunbide egokiak errespetatu, langileen legez kanpoko lagapena saihesteko.

Bosgarrena.- Kontratatu ezin diren zerbitzuak

Hurrengo prestazioak baliabide propioekin eman behar dira eta, beraz, ezin dute zerbitzu-kontratuen xede izan:

a) Botere publikoei atxikitako aginte-jarduerekin lotuta daudenak edo ahalmen publikoen gauzatzea inplikatzeko dutenak.

b) Administrazio-prozeduraren faseetakoren baten garapenari dagozkion eta bukaerako emaitza baldintza dezaketeko prestazioak.

c) Iraunkorrak edo ohikoak direnak, seigarren jarraibidean aurreikusitakoak izan ezik.

d) Xedapen edo txosten juridikoak egitea edo lege-aholkularitza edo aholkularitza teknikoa ematea helburu dutenak, seigarren jarraibidean aurreikusitako salbuespena izan ezik.

e) Giza baliabideen, aurrekontuaren, kontabilitatearen, altxorraren edo ondarearen kudeaketari eragiten diotenak.

Seigarrena.- Kontratu daitezkeen zerbitzuak

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen kontratazio-organoek, bakoitzak bere eskumenen eremu organiko eta funtzionalean, eta izaera horizontaleko organoek esleituta dauzkaten eskumenak errespetatuta, zerbitzu-kontratuak egin ahal izango dituzte, betiere osagarriak edo espezializazio tekniko handikoak baldin badira eta jarraibide hauetako 2. ataleko eskakizuna betetzen baldin badute, eta hurrengo prestazioetako bat edo batzuk xedetzat baldin badituzte:

- Era guztietako ondasunen konponketa eta mantentze zerbitzuak
- Garraio-zerbitzuak, garraio-ingeniaritzako zerbitzuak barne.
- Posta-zerbitzuak
- Telekomunikazio-zerbitzuak
- Herritarren arretarako zerbitzuak, Administrazioaren solaskide edo bitartekari-lanak egiteko direnak.
- Finantza eta aseguru-zerbitzuak
- Informazio-teknologiaren inguruko aholkularitza, programazio eta garapen zerbitzuak
- Ikerketa eta garapen zerbitzuak
- Kontu-ikuskaritza zerbitzuak
- Merkatuen ikerketa- eta estatistika-zerbitzuak
- Aholkularitza- eta kudeaketa-zerbitzuak eta zerbitzu teknikoak
- Publizitate-zerbitzuak
- Garbiketa-zerbitzuak
- Inprimaketa- eta argitalpen-zerbitzuak
- Ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuak
- Bidaien kudeaketa-zerbitzuak eta garraio-zerbitzu osagarriak
- Segurtasun-zerbitzuak

- Berezko langileen edo kolektibo zehatzen hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak, irakaskuntza araututik kanpokoak
- Osasuneko eta gizarte laguntzako zerbitzuak
- Aisialdi- eta kultur zerbitzuak
- Ingurumen-zerbitzuak eta meteorologia eta klimatologiakoak
- Itzulpen zerbitzuak
- Artxibatze zerbitzuak
- Erakusketak eta ekitaldiak antolatzeko zerbitzuak
- Prokuradoreen, notarioen eta jabetza-erregistroen zerbitzuak
- Zerbitzu juridikoak, salbuespen gisa, espedientean administrazioko langileek eman ezin duten maila handiko kualifikazio tekniko baten beharra frogatzen baldin bada.

2.- Aurreko atalean jasotako prestazioak kontratatzeke, haien bitartez betetzen diren jarduerak eta haien kanpo-hornidurek 2010eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik ezarritakoak izan behar dute; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Negoiazio Mahai Nagusiak hitzartu zuen 2010erako eta 2011rako ordainsarien igoerei eta enplegu publikoko neurriei buruzko akordioa indarrean sartu zen data baino lehen (Gobernu Kontseiluak 2010eko urtarrilaren 19an onartu zuen). Salbuespen gisa bakarrik onartuko da orduan ezarri gabeko jarduerak xede dituzten zerbitzuak kontratatzea edo, ezarrita egon arren, data horretan kontratatuta ez zeudenak.

Zazpigarrena.- Jarduteko prozedura

1.- Aurretiko baldintzak betetzeari buruzko memoria

Zerbitzu-kontratazioko espediente guztietan, aurretiko baldintzak betetzeari buruzko memoria bat erantsi beharko da, «Zerbitzu-kontratuak egiteko aurretiko baldintzak betetzeari buruzko memoria» izeneko **I. eranskin** gisa gehituta dagoen ereduaren arabera. Memoria horrek kontratua sustatzen duen organoak edo, kasuan kasu, kontratazio arloan eskumena daukaten sektore publikoko antolakuntza unitateek behar bezala beteta eta sinatuta egon behar du, eta, kontratatu beharreko zerbitzu jakinari dagokionez, sinatzaileek aurretiko baldintza hauek betetzen direla adierazi beharko dute:

- a) Beharrezkoa dela, erakundearen eskumena den zerbitzu bat emateko.

- b) Ez dagoela bitarteko propioekin eman beharreko zerbitzuen artean eta bai, aldiz, kontratatu daitezkeen zerbitzuen artean.
- c) Erakundeak dauzkan giza baliabide eta baliabide teknikoekin ezin duela bere gain hartu eta, gainera, ez dela komeni edo ezinezkoa dela baliabideak berrantolatzea.
- d) Kontratuaren gauzatze fasean langileen legez kanpoko lagapenik gertatuko ez dela bermatzeko, prestaketa fasean beharrezko neurriak hartu direla, zortzigarren jarraibidean zehaztutako jardunbide egokien arabera.

Memoria hau ez da beharrezkoa izango kontratu txikitzat hartzen diren zerbitzuen kontratazio-espedienteetan.

2.- Kontratuen Erregistro Publikoan inskribatzea

Administrazio Orokorrak eta administrazio instituzionaleko erakundeek egindako zerbitzu-kontratuak kontratazio arloan eskumena duen zuzendaritzaren Kontratuen Erregistro Publikoan inskribatu beharko dira, publikotasun ondorioetarako eta jende guztiak horren berri izan dezan.

Sektore publikoko erakundeetan, kontratazio arloko eskumena daukaten organoen eta antolaketa-unitateen lana izango da inskribatzea.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoko inskripzioa kasuan kasuko faktura ordaintzeko betebeharra onartzeko izapideak egin baino lehen egin beharko da, aurreratutako funtsen bidez ordaindu beharreko zerbitzu-kontratuen kasuan izan ezik. Azken horien kasuan kontratazioaren arloan eskumena duen zuzendaritzak zehaztutako unean eta moduan inskribatu beharko da Erregistroan, eta horretarako, gainera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak behar den informazioa emango dio, aurreratutako funtsen aplikazio informatikoan baitauka jasota.

3.- Behin eta berriz egiten diren kontratazioak

Organo esleitzaille berak zerbitzu bat behin eta berriro kontratatuzeko egiten dituen kontratuetan, funtzio publikoaren arloan eskumena duen sailburuordetzak mota horretakotzat jotzen baldin baditu, aurretiko baldintzak betetzeari buruzko memoria modu agregatuan egin daiteke, tipologia eta epe jakin baterako.

Zortzigarrena.- Zerbitzu-kontratuak kudeatzerakoan langileak legez kanpo lagatzea saihesteko jardunbide egokiak

8.1.- Kontratuko dokumentuak prestatzeko fasean

8.1.1.- Kontratuaren xedea zerbitzu bat osorik ematea izan behar du, enpresa kontratistak egin beharreko funtzio guztien katalogoa zehaztuta, besteak beste, zuzendaritza, antolaketa eta kontratua beteko dela bermatzeko beharrezko neurriak hartzeko ekimena.

8.1.2.- Prezioa zehazteko, oro har, kontratuaren xede diren lanak hartuko dira kontuan, eta, ahal den neurrian, «denbora unitateak» irizpidea oinarritzat hartzea saihestuko da; adibidez: lan kategoria bakoitzaren lanordu edo lanegunak. Horrek ez du eragozten, ordea, beharrezkoa denean, kontratuaren ezaugarriak edo kontratu mota dela medio, kontratatutako orduak aipatzea.

8.1.3.- Baldintza teknikoen eta administrazio-klausula zehatzen agiriak:

a) Kontratistak gutxienez koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat –langile taldekoa– izendatzeko betebeharra jaso beharko dute. Pertsona hori izango da erakunde kontratugilearen solaskidea eta hari egokituko zaio lanen zuzendaritza, baita kontratuaren gauzatzearekin zerikusia daukaten gainerako pertsonen agindu eta lan-jarraibideak zuzenean ematea ere.

b) Kontratistak erakunde propio eta egonkorra daukala bermatzeko, baita kontratatutako zerbitzua ondo emateko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide pertsonalak dauzkala ere, kontratuaren xederako beharrezkoak diren gaitasunak frogatzeko baldintzak ezarriko dira.

c) Kontratatik langileen gaineko zuzendaritza ahalmena –enpresari guztiei atxikitakoa– modu erreal, eraginkor eta etengabeen beteko duen konpromisoa jasoko da, eta kontratua gauzatzeko esleitutakoei dagokienez, soldaten negoziazio eta ordainketarekin, Gizarte Segurantzaren afiliazio eta kotizazioekin eta prestazio, baimen, lizentzia, opor, ordezkapen, lan arriskuen prebentzio, diziiplina-araudi, harreman sindikal eta lan kontratu propioetatik eratortzen diren gainerako eskubide eta betebeharrekin lotutako guztia eskusiboki hartuko ditu bere gain.

d) Ez dute barne hartuko botere esleitzaleei kontratatik kontratua gauzatzeko esleituko dituen langileak aukeratzeko inolako ahalmenik ematen dien klausularik.

e) Ez dute kontratua gauzatzeko lanean diharduten langileen produktibitatea baloratzeko klausularik barne hartuko.

f) Langileen lan profila gaitasuna zehazteko erabakigarria baldin bada bakarrik exijituko da kontratatik kontratua gauzatzeko esleituko dituen pertsonak identifikatzea. Kasu horietatik aparte, ez zaio inolako aipamenik egingo kontratatik kontratua gauzatzeko erabiliko dituen langileen nortasunari, ezta kontratuaren xedea langile zehatz batzuk sektore publiko erakunde kontratatzailearen esku jartzea dela suposatzen eraman dezakeen bestelako inolako elementurik ere. Kontratuaren xedea ondo betetzeko beharrezkoak diren eskakizunak bakarrik egin behar dira.

g) Ez dute barne hartuko botere esleitzaleak kontratatik langileen gaineko konpromisorik bere gain hartzea ekarriko duen enpresaburuaren subrogazio-klausularik.

h) Oro har, zerbitzua enpresari kontratatikaren egoitza edo instalazioetan emango dela zehaztuko dute, eta salbuespen gisa bakarrik eman ahal izango dituzte zerbitzu horiek erakunde kontratatzaileen mendeko zentro batean edo batzuetan. Kasu horretan, kontratuaren baldintza-agirietan, hori arrazoitzeke arrazoi objektibo eta justifikatuak jaso behar dira.

Kontratatutako zerbitzuak zentro horietan etengabe eman behar badira, kontratua gauzatzen hasi aurretik, kontratatik kontratua gauzatzeko esleitzen dituen langileak Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden eta altan eman dituen egiaztatzeke betebeharra

ezarriko da. Era berean, langile horiei sektore publikoa osatzen duten erakundeetako langileen lan eremutik bereizitako lanerako espazioak eman beharko zaizkie.

i) Ez dute barne hartuko enpresa kontratistako langileei sektore publikoko botere esleitzaileren baliabide propioak erabiltzeko ahalmena ematen dien klausularik, ez material edo lan ekipoak entregatzeko, ezta aplikazio informatikoak erabili ahal izateko ere. Kontratutako zerbitzua eraginkorragoa izateko, botere esleitzailak ekipoak edo materiala entregatzeari edo aplikazio informatikoen erabilera ahalbidetu edo baimentzeari beharrezkoa baderitzo, horren berri emango da, iraupen zehatza aipatuz, dagokion baldintza-agirian.

j) Sektore publikoko botere esleitzailen aldeko kaltegabetasun klausulak finkatuko dira, kontratistak arlo honetan aurreikusitakoarekin lotuta hartzen dituen betebeharrak haustearen ondorioz, aipatutako botere esleitzaileri enpresa kontratistaren edo haren langileen ekintzengatik isunak edo zigorrak jartzen zaizkien kasuetarako.

Ez baldintza-agiriak egitea ez kontratu bat formalizatzea beharrezkoa ez den kasuetan, kontratu-harremana aurreikuspen eta muga horien arabera eratuko da, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailak ezartzen duen irizpidearen arabera.

8.2.- Gauzatze fasean

a) Kontratu-dokumentuetan ezarritakora lotu behar zaio: arretaz zaindu hitzartutakotik ez dela desbideratzen, iraupen epea, baita, kasuan kasu, luzapenak ere, behar bezala betetzen direla, eta kontratistaren langileek ez dutela aurreikusitakotik kanpoko eginkizunik betetzen.

b) Kontratistak kontratuaren gauzatzean kontratuaren zuzendaritza eta giza baliabide eta baliabide material propioen antolaketa funtzioak betetzen dituela kontrolatu behar da.

c) Botere esleitzailak ez ditu bere gain hartu behar kontratistaren langileen gaineko antolaketa funtziorik, ezta zuzendaritza funtziorik ere, eta komunikazioa botere esleitzailako arduradunaren eta kontratistak izendatutako koordinatzaile teknikoaren artekoa bakarrik dela zainduko da. Koordinatzaile teknikoak kontrolatuko ditu

asistentzia, lan arauak betetzen diren eta oporren banaketa eta, kasuan kasu, alde kontratugileari langileekin lotutako gorabeheren berri emango dio, gorabehera horiek zerbitzuaren garapenean ondorioz izan badezakete.

Horrek guztiak ez du eragotziko zerbitzuaren prestazio integrala koordinatzea eta sektore publikoko kontratuen legediak kontratazio organoari kontratuaren gauzatzeari dagokionez ematen dizkion ahalmenez baliatzea.

d) Baldintza-agirietan zerbitzuak administrazioaren bulegoetan ematea aurreikusita egongo balitz, lehendakariordearen 2006ko abenduaren 18ko Aginduan xedatutakoa bete beharko da. Agindu horren bidez, kanpoko langileek Eusko Jaurlaritzako eraikinetara sarbidea izateko arauak eta prozedurak ezartzen dira, baita espazioen eta bestelako baliabideen esleipenari buruzkoak ere. Edozein kasutan, kanpoko langileen identifikazioak eta jantziek, uniformedun langileen kasuan, ezingo dute administrazioaren bulego beretan lan egiten duten langile publikoenen berdinak izan.

Kasu horietan, eta zentroaren edo lantokiaren titular gisa, prebentzioaren alorrean eskumena duen organoa edo zerbitzu orokorretakoa bertan gertatzen denaren erantzule izango da, laneko arriskuen prebentzioari edo instalazioak irekitzeko eta ixteko ordutegia zehazteari dagokienez; beraz, erabaki batzuk hartu beharko dira eta, aipatutakoaren ondorioz, zerbitzu-kontratuen garapenari ere eragingo diete.

e) Kontratataren langileen eta erakunde kontratatzailearen langileen arteko lehia eta nahasketa saihestuko da, dagozkien funtzioak eta zereginak gauzatzean, opor txandetan, baimenetan, eta abarretan.

f) Kontratataren langileei ondorengo zerbitzuez baliatu ahal izatea eragotziko zaie:

- Prestakuntza ikastaroez, laneko arriskuen prebentziokoak izan ezik
- Osasun-zerbitzuaz, larrialdi kasuetan izan ezik
- Gizarte ekintzako prestazioez
- Aldizkako osasun-azterketez
- Ibilgailuez
- Intraneterako eta posta elektronikoko korporatiborako sarbideaz, kontratuari dagokion zerbitzua emateko ezinbestekoa baldin bada izan ezik. Kasu horretan, postako direktorioetan kanpoko langile gisa agertu beharko dute

- Langile publikoen sarbidea kontrolatzeko txartelez. Kasuan kasu, sartzeko baimen berezia emango zaie, baina inola ere ezingo dute balio beraien presentzia eta ordutegia kontrolatzeko
- Botere esleitzaillearen logoa daramaten bisita txartelez
- Botere esleitzaillearen materialaz, kontratuaren baldintza-agirietan aurreikusitakoari kalterik egin gabe
- Langile publiko propioei aitortutako beste edozein onuraz edo abantaila sozialez.

g) Kontratatistaren langileek ezingo dute zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainik jaso erakunde kontratatzaileen aurrekontuaren kontura, ezta errendimendu berezi bat saritzera zuzendutako pizgarririk jaso ere.

h) Kontratatistaren langileak sektore publikoko botere esleitzaillearen erakundeko kide diren irudipena sor dezakeen edozein inklusio eragozte.

Bederatzigarrena.- Klausulen agirian barne hartu beharreko klausula

Jarraibide hau betetzeko, klausula administratibo zehatzen agirian agertu behar duen eduki berriari dagokionez, **II. eranskin** gisa, indarrean dauden Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek, erakunde autonomoek eta haiei atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoek zerbitzuak kontratatzeko klausula administratibo zehatzen agiri-ereduen aldaketa jaso da.

Helburu berarekin, jarraibide hauen **III. eranskin** gisa, aurreko paragrafoan aipatu ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako botere esleitzailleek zerbitzuak kontratatzeko baldintza-agirietan txertatzea gomendatzen den klausula bat jaso da.

Hamargarrena.- Ez betetzeagatiko erantzukizuna

Langileen legez kanpoko lagapenagatik zigor ebazpenen bat ematen bada, zerbitzu-kontratu batetik eratorritakoa, eta funtzio publikoaren alorrean eskumena duen Sailburuordetzak ondoren egiten dituen kontroletan jarraibide hauek betetzen ez direla ikusten baldin badu, espediente informatibo bat irekiko da, gertatutakoaren baldintza zehatzak eta erantzukizun posibleak zehazteko.

Hamaikagarrena.- Erreklamazio judizialen edo auzibidetik kanpokoan kasuan hartu beharreko neurriak

Edozein erreklamazio judizialean edo auzibidez kanpokotan langileen legez kanpoko lagapena, lan harreman mugagabea, soldata ezberdintasunaren aitortzea, edo kaleratze baliogabe edo bidegabea deklaratzeko eskatzen bada, halako kontratazio publikoren batekin lotutako lan kontratuetan lege-iruzur bat existitzeagatik, hirugarren jarraibidean aipatutako erakundeek zera egin beharko dute:

- a) Zerbitzu juridikoei auzipean dauden interesak ahalik eta ongien defendatzeko beharrezkoa den laguntza eman. Bereziki, erreklamatzaileraren eskaria ontzat hartuko balitz, aurrekontu legaltasunean oinarrituta hari, haren lan sailkapenaren arabera, egokituko litzaiokeen soldata zenbatekoa izango litzatekeen adierazi beharko dute, dagokion auzibidean baliatu ahal izan dadin.
- b) Funtzio publikoaren arloan eskumena duen sailburuordetzari, aurretik behar adina denbora emanaz, langileen legez kanpoko lagapena aitortzeko eskaria jasotzearen ondorioz hartutako edozein neurri jakinaraztea.
- c) Ebazpenean langile bati mugagabe ez-finkoa dela onartuko balitzaio, dagokion sail, erakunde autonomo eta erakundeak kontratuaren xedea den zerbitzu-prestazioa honelakoa den aztertu beharko luke:
 - i. Administrazio esparru horren egiturazko beharrei erantzuten dien egoera bat. Kasu horretan:
 - Plazari dagokion dotazioa sortuko da, horretarako ezarritako prozedurari jarraituta.
 - Interesdunari plaza hori esleitu zaiola jakinaraziko zaio.
 - Gerora, plaza hori karrerako funtzionario batek edo langile finko batek beteko du, aplikatu beharreko araudian behin betiko hornikuntza egiteko aurreikusitako prozeduren bitartez. Orduan, langileak epai bidez lortutako lan harreman mugagabea bukatu egingo da.

ii. Aipatutako administrazio-esparruaren koiunturazko arrazoiei erantzuten dien egoera bat. Kasu horretan, lan-harremanaren iraungitzea izapidetu beharko da.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten sail, erakunde autonomo eta gainerako erakundeak, enpresa kontratistarekin batera, langileen legez kanpoko lagapenagatik ebazpen irmo baten bidez zigortzen badituzte, eta aipatutako administrazio publikoek eta erakundeek exekuzio fasean zigorraren zenbateko osoa ordaindu baldin badute, legez ezarritako erantzukizun solidarioa betetzeko, ordena juridikzional zibilaren aurrean, zigortutako enpresa kontratistaren aurkako dagozkien akzio judizialak gauzatu beharko dituzte, aipatutako enpresak ordaindu behar zituen kopuruak berreskuratzeko.

Neurri horiek guztiak funtzio publikoaren arloan eskumena duen zuzendaritzak koordinatuko ditu, araubide juridikoaren arloan eskumena duen zuzendaritzarekin eta dagozkien sail eta erakunde autonomoetako zerbitzu zuzendaritzekin elkarlanean.

Hamabigarrena.- Langileen legez kanpoko lagapena saihesteko informazioa eta prestakuntza.

Zerbitzuen kontratazioari buruzko ezagutza eta jardunbide egokiak zabaltzeko helburuarekin, funtzio publikoaren arloan eskumena duen sailburuordetzak, Eusko Jaurlaritzako sailtako zerbitzu zuzendaritzekin eta kontratazio arloko eskumena daukaten sektore publikoko erakundeetako antolaketa unitateekin batera, ondokoei zuzendutako ekintzak eta saio informatiboak antolatuko dituzte:

- Kontratuak formalizatzeko eskumena duten organoen titularrei
- Kontratazio-zerbitzuetako arduradunei
- Kontratazioko teknikariei
- Sailtako aholkularitza juridikoetan kontratazio-esparruko funtzioak esleituta dauzkaten abokatuei
- Sektore publikoa osatzen duten erakundeetako zuzendariei eta kontratazio-arduradunei

Era berean, zabalkunde orokorra egingo da, **IV. eranskin** gisa, «Jardunbide egokiak langileak legez kontra lagatzea saihesteko», jaso den jardunbide egokien taulan oinarrituta.

Hamahirugarrena.- A posteriori kontrolak eta jarraipena

13.1.- A posteriori kontrolak

Zerbitzu-kontratua formalizatutakoan, funtzio publikoaren arloan eskumena duen sailburuordetzak, bai kontratuaren hasierako planteamendua, bai ondorengo gauzatzea, jarraibide hauen edukiarekin bat datozela egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen jarduerak egin ahal izango ditu, bai exekuzio aldiaren, bai kontratua amaitu ondoren ere.

13.2.- Jarraipena

Kontratazioen jarraipena egiteko, kontratazioen arloan eskumena duen zuzendaritzak Kontratuen Erregistro Publikoan inskribaturiko zerbitzu-kontratu guztiei buruzko informazioa emango die zuzendaritzari eta funtzio publikoaren arloan eskumena duen sailburuordetzari.

13.3.- Txostenak

Urtean behin, funtzio publikoaren arloan eskumena duen sailburuordetzak egindako kontratuei buruzko txosten bat kaleratuko du. Txosten hori zerbitzu zuzendaritzari helaraziko die eta Gobernu Kontseiluaren esku jarriko da. Txostenaren lanketan Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak ere parte hartuko dute.

Hamalagarrena.- Ezarpena

Funtzio publikoaren arloan eskumena duen sailburuordetzak eta sailetako zerbitzu zuzendaritzek beren aplikazio-eremuan sartzen diren erakundeek jarraibide hauek ezarri eta aplikatzen dituztela zainduko dute.

I. ERANSKINA

ZERBITZU-KONTRATUAK EGITEKO AURRETIKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO

MEMORIA

.....jaunak/andreak, ,
.....-ko zuzendari gisa, hura kontratua sustatzen duen
organoa izanik.

..... xedea daukan kontratuari dagokionez,

JAKINARAZTEN DU

I.- Kontratu nahi den jardura beharrezkoa da-(r)en eskumena den zerbitzu bat emateko. (zuzendaritza edo antolaketa-unitatea, ...).

II.- Jardura hori kontratu daitezkeen zerbitzuen artean dago, seigarren jarraibidearen arabera eta xedek ez ditu bosgarren jarraibidearen arabera baliabide propioekin eman behar den prestaziorik barne hartzen.

III.--k (saila, erakundea, ...) ezin du prestazio hori dauzkan giza baliabide eta teknikoek bitartez eman eta, gainera, ez da komeni edo ezinezkoa da baliabide horiek berrantolatzea.

IV.- Kontratu prestatzeko fasean egindako kontratu-dokumentuek barne hartzen dituzte zortzigarren jarraibidea, zerbitzu-kontratuak egiterakoan langileen legez kanpoko lagapenak saihesteko jardunbide egokiei buruzkoa, betetzeko beharrezkoak diren bermeak.

.....(e)n,(e)ko(a)ren (e)(a)n

Sin.:

II. ERANSKINA

ZERBITZUAK KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN **AGIRI-EREDUEN ALDAKETA**

I.- Zerbitzuak prozedura ireki-mugatu-negoziatuaren bidez eta publizitatea baliatuta kontratatzeke klausula-agiriko **32.8 KLAUSULA** eta prozedura negoziatu eta publizitaterik gabeko baldintza-agiriko **27.8 KLAUSULA** honela idatzita geratuko dira:

Baliabide materialak eta giza baliabideak:

Arau orokorra:

Kontratastak, zerbitzua edo prestazioa emateko, kontratuan hitzartutako epeak ondo betetzeko beharrezkoak diren ekipoa eta baliabide osagarriak eduki behar ditu eta haiei eutsi behar die, bereziki, xxxx eranskinean aipatzen diren baliabideak, eta dagokion kasurako definitu den dedikazioa eskaini beharko diote zerbitzuari. Gainera, aurkezpeneko 29.6 puntuan exijitu baldin bada, kontratua gauzatzeko arduradunen zerrendan agertzen diren pertsonen ere zehaztutako dedikazioa eskaini beharko diote.

Kontratastaren langileei buruzko arau zehatzak:

Kontratua gauzatzera atxikitako langileak kontratastaren mende bakarrik egongo dira eta harenak bakarrik izango dira enplegu-emaleei atxikitako eskubideak eta betebeharrak. Ondorio horietarako, kontratastak ondorengo betebeharrak hartuko ditu bere gain:

1.- Kontratastak bakarrik aukeratu ahal izango ditu kontratua gauzatzera atxikitako lantaldea osatuko duten langileak –baldintza-agirietan exijitutako titulazio eta esperientzia baldintzak bete beharko dituzte (titulazio eta esperientzia baldintza zehatzak definitzen diren kasuetan)–. Hala ere, horrek ez du eragotziko «erakunde kontratugileak» baldintza horiek betetzen ote diren egiaztatu ahal izatea.

2.- Kontratastak lantaldea egonkorra izateko eta, aldaketarik gertatuz gero, bakanak eta arrazoituak izateko ahalegina egingo du, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko, (*exijentzia hori justifikatzeko arrazoirik baldin badago*), eta «erakunde kontratugileari» aldaketa ororen berri emango dio.

3.- Kontratastak kontratua gauzatu duen lantaldearen gaineko zuzendaritza ahalmena, enpresa guztiei atxikitakoa, modu erreal, eraginkor eta etengabe

exekutatzeko betebeharra bere gain hartuko du. Bereziki, soldaten negoziazioa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporren onarpena, baja edo hutsune kasuetan langileen ordezkapena, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak – dagokionean, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne–, lan arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak, diziplina-ahala erabiltzea, baita langilearen eta enplegu-emailearen arteko kontratuzko harremanetik eratorzen diren eskubide eta betebeharrak guztiak ere.

4.- Kontratatik kontratua gauzatzera atxikitako langileek beren lanean pleguetan kontratuaren xede gisa mugatutako jarduerari dagozkion funtzioak besterik ez dituztela beteko zainduko du, bereziki.

5.- Kontratatik bere langile taldeko kidea den koordinatzaile tekniko edo arduradun bat, gutxienez, izendatu beharko du, eta hark ondoko betebeharrak izango ditu:

a) «Erakunde kontratugilea»-ren aurrean kontratistaren solaskide gisa jardutea, batetik kontratistaren eta kontratua gauzatzera atxikitako lantaldeko kideen eta bestetik «erakunde kontratugilea»-ren arteko komunikazioa bideratuz, kontratua gauzatzetik eratorritako auzi guztietan.

b) Lana kontratua gauzatzeaz arduratuko diren langileen artean banatzea eta langile horiei kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea.

c) Lantaldeak esleitu zaizkion funtzioak ondo betetzen dituela gainbegiratzea, baita langile horiek lanera joaten direla kontrolatzea ere.

d) Kontratua gauzatzera atxikitako langileen oporraldia antolatzea, horretarako kontratista «erakunde kontratugilea»-rekin ondo koordinatuz, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko.

e) «Erakunde kontratugilea»-ri kontratua gauzatzera atxikitako lantaldean sortzen diren aldaketak, noizbehinkakoak edo iraunkorrak, jakinaraztea.

Kontratua gauzatzeko tokiari buruzko arau zehatza:

Kontratatik bere bulego edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratua, non eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde bulegoetan eman beharra baldintza teknikoaren pleguan edo pleguaren aurkezpenean jasota eta espresuki baimenduta ez dagoen. Kasu horretan, erakunde kontratugileak langile publikoek erabiltzen dituzten espazioak ez bestelakoak utziko ditu kontratistaren esku, eta kontratistaren lana izango da bere langileek esleitutako kokapena errespetatzea.

Kontratuaren xedeak zerbitzuak sektore publikoa osatzen duten erakundeetako lantokietan kokatutako ondasunetan edo instalazioetan etengabe ematea eskatzen badu, kontratistak, gainera, prestazioa ematen hasi aurretik, kontratua gauzatzera atxikitako langileak Gizarte Segurantzari afiliatuta eta alta emanda daudela frogatu beharko du.

Kaltegabetasun araua:

Kontratistak, klausula honetan bere gain hartutako betebeharrak urratzearen ondorioz, erakunde kontratugileari kopuru batzuk ordaintzeko zigorra ezarriko baliote kontratistarekiko solidariotasunagatik, erakunde kontratugileak kontratistari ordaindutako kopuruak ordainaraziko dizkio. Horretarako, egoki eta komenigarria den edozein akzio, administratibo edo judizial, abiatu ahal izango dute erakunde kontratugileek, ordaindutako kopuru guztiak berreskuratu arte.

II.- Honela idatzita geratuko dira Zerbitzuak kontratatzeako klausula-agiriaren **VII. ERANSKINA** (prozedura ireki-mugatu-negoziatuaren bidez eta publizitatea baliatuta kontratatzea) eta Zerbitzuak kontratatzeako klausula-agiriaren **V. ERANSKINA** (prozedura negoziaturik eta publizitaterik gabe kontratatzea):

AGIRIAREN ERANSKINA

(Eredu hau prozedura guztietan nahitaez aurkeztu beharrekoa da)

BALIABIDEAK ESLEITZEKO ETA GAUZATZE BALDINTZAK BETETZEKO KONPROMISOA

..... jaunak/andreak,-(e)ko helbidean bizi denak eta NANA daukanak,-en izenean (norberarenean, edo ordezkatzan duen pertsona, erakunde edo enpresarenean), jakinarazpenak bidaltzeko helbidea-(e)ko (kalea), PK izanik eta telefonoa, helbide elektronikoa eta IFK.

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU

..... xedea daukan kontratua, espediente zenbakia duena, gauzatzeari dagokionez, ondoko **konpromisoak** hartzen dituela:

I.- Kontratuaren gauzatzerara ondokoak atxikitzea:

- a) bere antolaketa produktibo propioa.
- b) pleguan gauzatze-baldintza berezi gisa finkatutako baliabideak.
- c) jarraian zehaztuko diren giza baliabideak eta baliabide materialak, lehenengoen kasuan haien prestakuntza eta esperientzia adierazita: *(kontratazio organoak, kontraturako atxiki beharreko giza baliabideen edo baliabide materialen ezaugarri edo kualifikazioei minimo bat ezarri behar zaiela iritzita, finkatu baldin baditu bakarrik bete beharko da).*

– Giza baliabideak:

– Baliabide materialak:

II.- Kontratatari kontratua gauzatzerara atxikitako langileen inguruan dagozkion betebeharrak zorrozki betez exekutatzeko. Betebehar horiek administrazio-klausula zehatzen agiriko klausulan zehaztuta daude.

Eta hala jasota gera dadin, adierazpen hau sinatu dut,-(e)n,-(e)ko
.....aren-(e)(a)n.

Sinadura

NANa

III. ERANSKINA

JAURLARITZAREN KONTSEILUAK ONARTUTAKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN AGIRI-EREDUAK APLIKATZEN EZ ZAIZKIEN BOTERE ESLEITZAILEEK, ZERBITZU-KONTRATUAK EGITEKO KONTRATU-DOKUMENTUAK OSATZEKO, KONTUAN HARTU BEHARREKO KLAUSULAK ETA GAUZATZE-BALDINTZEN KONPROMISOA.

xxxx klausula.- Kontratua gauzatzeko berariazko arauak

Kontratistaren langileei buruzko arau zehatzak:

Kontratua gauzatzera atxikitako langileak kontratistaren mende bakarrik egongo dira eta harenak bakarrik izango dira enplegu-emaleei atxikitako eskubideak eta betebeharrak. Ondorio horietarako, kontratistak ondorengo betebeharrak hartuko ditu bere gain:

- 1.- Kontratistak bakarrik aukeratu ahal izango ditu kontratua gauzatzera atxikitako lantaldea osatuko duten langileak –baldintza-agirietan exijitutako titulazio eta esperientzia baldintzak bete beharko dituzte (*titulazio eta esperientzia baldintza zehatzak definitzen diren kasuetan*)–. Hala ere, horrek ez du eragotziko «erakunde kontratugileak» baldintza horiek betetzen ote diren egiaztatu ahal izatea.
- 2.- Kontratistak lantaldea egonkorra izateko eta, aldaketarik gertatuz gero, bakanak eta arazoituak izateko ahalegina egingo du, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko, (*exijentzia hori justifikatzeko arrazoirik baldin badago*), eta «erakunde kontratugileari» aldaketa ororen berri emango dio.
- 3.- Kontratistak kontratua gauzatu duen lantaldearen gaineko zuzendaritza ahalmena, enpresa guztiei atxikitakoa, modu erreal, eraginkor eta etengabe exekutatzeko betebeharra bere gain hartuko du. Bereziki, soldaten negoziazioa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporren onarpena, baja edo hutsune kasuetan langileen ordezkapena, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak –dagokionean, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne–, lan arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak, diziplina-ahala erabiltzea, baita langilearen eta enplegu-emalearen arteko kontratuzko harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak guztiak ere.

4.- Kontratatik kontratua gauzatzera atxikitako langileek beren lanean pleguetan kontratuaren xede gisa mugatutako jarduerari dagozkion funtzioak besterik ez dituztela beteko zainduko du, bereziki.

5.- Kontratatik bere langile taldeko kidea den koordinatzaile tekniko edo arduradun bat, gutxienez, izendatu beharko du, eta hark ondoko betebeharrak izango ditu:

a) «Erakunde kontratugilea»-ren aurrean kontratistaren solaskide gisa jardutea, batetik kontratistaren eta kontratua gauzatzera atxikitako lantaldeko kideen eta bestetik «erakunde kontratugilea»-ren arteko komunikazioa bideratuz, kontratua gauzatzetik eratorritako auzi guztietan.

b) Lana kontratua gauzatzeaz arduratuko diren langileen artean banatzea eta langile horiei kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea.

c) Lantaldeak esleitu zaizkion funtzioak ondo betetzen dituela gainbegiratzea, baita langile horiek lanera joaten direla kontrolatzea ere.

d) Kontratua gauzatzera atxikitako langileen oporraldia antolatzea, horretarako kontratista «erakunde kontratugilea»-rekin ondo koordinatuz, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko.

e) «Erakunde kontratugilea»-ri kontratua gauzatzera atxikitako lantaldean sortzen diren aldaketak, noizbehinkakoak edo iraunkorrak, jakinaraztea.

Kontratua gauzatzeko tokiari dagokionez:

Kontratatik bere bulego edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratua, non eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen bulegoetan eman beharra baldintza teknikoen pleguan edo pleguaren aurkezpenean jasota eta espresuki baimenduta ez dagoen. Kasu horretan, erakunde kontratugileak langile publikoek erabiltzen dituzten espazioak ez bestelakoak utziko ditu kontratistaren esku, eta kontratistaren lana izango da bere langileek esleitutako kokapena errespetatzea.

Kontratuaren xedeak zerbitzuak sektore publikoa osatzen duten erakundeetako lantokietan kokatutako ondasunetan edo instalazioetan etengabe ematea eskatzen badu, kontratatik, gainera, prestazioa ematen hasi aurretik, kontratua gauzatzera atxikitako langileak Gizarte Segurantzari afiliatuta eta alta emanda daudela frogatu beharko du.

Kaltegabetasun araua:

Kontratatik, klausula honetan bere gain hartutako betebeharrak urratzearen ondorioz, erakunde kontratugileari kopuru batzuk ordaintzeko zigorra ezarriko baliote kontratistarekiko solidariotasunagatik, erakunde kontratugileak kontratistari ordaindutako kopuruak ordainaraziko dizkio. Horretarako, egoki eta komenigarria den edozein akzio, administratibo edo judizial, abiatu ahal izango dute erakunde kontratugileek, ordaindutako kopuru guztiak berreskuratu arte.

Eranskina: Baliabideak esleitzeko eta gauzatze baldintzak betetzeko konpromisoa.

Kontratua lortzeko hautagai gisa aurkezten diren lizitatzailleek baliabideak esleitzeko eta gauzatze baldintzak betetzeko konpromisoa beren gain hartzearen adierazpena barne hartu beharko dute, erantsitako ereduaren arabera.

BALIABIDEAK ESLEITZEKO ETA GAUZATZE BALDINTZAK BETETZEKO KONPROMISOA

Izen-abizenak: helbidea
.....n eta NANA duenak, bere izenean edo
.....ren izenean [ordezkatutako pertsona, erakunde
edo enpresaren izena] (jakinarazpenetarako helbidea:
kalea, PK:, herria:; Telefonoz zk.:
....., IFK:.....).

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU

..... xedea daukan kontratua, espediente
zenbakia duena, gauzatzeari dagokionez, ondoko **konpromisoak** hartzen dituela:

I.- Kontratua gauzatzeko bere antolaketa propioa esleitzea, baita baldintza-agirian
eskatutako baliabide materialak eta giza baliabideak ere.

II.- Kontratistari kontratua gauzatzera atxikitako langileen inguruan dagozkion
betebeharrak zorrozki betez exekutatzeko. Betebehar horiek baldintza-agiriko
klausulan zehaztuta daude.

Eta hala jasota gera dadin, adierazpen hau sinatu dut,-(e)n,-(e)ko
.....aren-(e)(a)n.

Sinadura

NANA

IV. ERANSKINA







Langileen legez kanpoko lagapena saihesteko jardunbide egokiak



Kontratua prestatzeko fasean

- | | |
|---|--|
|  Kontratuaren xedea mugatu eta eman beharreko prestazioen katalogoa zehaztu. |  Enpresa kontratista antolaketa eta baliabide material eta giza baliabideen aldetik existitzen dela bermatu. |
|  Enpresak bideragarritasun ekonomikoa eta erakunde kontratugilearekin zerikusirik ez daukaten bezeroak aurretiaz dauzkala bermatu. |  Enpresari zuzendaritza ahalmena modu erreal, eraginkor eta etengabean erabiltzeko konpromisoa exijitu. |
|  Enpresak koordinatzaile tekniko bakarra izendatu behar du, administrazioan kontratuaz arduratzen den pertsonaren mintzakidea izan dadin. |  Kontratutako enpresaren langileen nortasuna inoiz ez adierazi, ez parte hartu aukeraketan eta langile kopurua ez zehaztu. |
|  Ez ahalbidetu zerbitzuak administrazioaren egoitzetan ematea. Kontrako kasuan, langileak Gizarte Segurantzari afiliatuta eta alta emanda daudela egiaztatu. |  Ez utzi administrazioaren inolako baliabide propiorik, ez teknikorik ez informatikorik, erabiltzen (aplikazioetarako sarbidea, ekipa edo materialen lagapena). |
|  Ez barne hartu enpresa kontratistako langileen gaineko konpromisorik norbere gain hartzea ekarriko duen enpresaburuaren subrogazio-klausularik. |  Ez barne hartu kontratatutako enpresako langileen produktibitatea baloratzeko klausularik. |
|  Ez barne hartu aurrekontua edo kontratuaren fakturazioa zehazteko denbora unitateen arabera balorazio klausularik. |  Langileen legez kanpoko lagapen ebazpenen aurrean administrazioa kaltegabetezko klausulak barne hartu. |

Kontratua gauzatzeko fasean

- | | |
|--|---|
|  Pleguetara, kontratuaren xedera eta aurreikusitako prestazioetara zorrozki lotu. |  Kontratistaren antolaketa baliabideak eta baliabide materialak kontratuaren gauzatzean aplikatzen direla bermatu. |
|  Ez hartu norbere gain enpresa kontratistaren gaineko inolako antolaketa edo zuzendaritza funtziorik. |  Komunikazioak koordinatzaile teknikoaren bitartez egin eta hark bere langileen lan arauak kontrolatu ditzala. |
|  Enpresako langileen eta langile publikoen arteko lehia eta nahasketa saihestu, funtzioen eta zereginen garapenean, opor kontuetan, etab. |  Ez planteatu enpresako langileek kalte-ordainik jaso ahal izatea, ezta errendimendu bereziarengatikozko pizgarri klausularik ere. |
|  Enpresako langileek zerbitzu jakin batzuk erabiltzea eragotzi. |  Enpresako langileak sektore publikoko botere esleitzailerikoa kideak izatearen irudipena sor dezakeen edozein inklusio saihestu. |